



**Día Mundial de la
Seguridad del Paciente**
17 de septiembre de 2024

Pazientearen Segurtasunaren Nazioarteko Eguna (irailaren 17a) Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarri zuen 2019an, WHA72.6 "Pazientearen segurtasunaren aldeko nazioarteko ekintza" ebazpena emanda, Pazientearen Segurtasunari buruzko gizarte-kontzientzia sustatzeko, ikusarazteko eta areagotzeko.

Aurten, "Pazientearen segurtasunerako diagnostikoa hobetzea" gaia aukeratu da, diagnostiko zuzena eta egokia egiteak pazientearen segurtasuna bermatzeko duen garrantzi kritikoa aintzat hartuta.

Horrela, "**Diagnostiko zuzenak, paziente seguruak**" lelopean, OMEk estatu kideei esaten die estrategiak bila ditzatela diagnostiko berantiarren, okerren edo omitituen ondoriozko gorabeherak minimizatzeko.

OMEren ekimenarekin bat eginez, Osasun Ministerioak, Asistentziaren Kalitatearen Espainiako Elkartearekin lankidetzan, **Jardunaldi Zientifiko** bat antolatu du irailaren 17rako, **irudi bidezko diagnostikoko eta laborategiko eremuetako segurtasuna jorratzeko**.

Hemendik jardunaldiaren orrira sar zaltezke



PAZIENTEAREN SEGURTASUN ESKUBIDEEN GUTUNA (OME)

- Apirilean Pazientearen Segurtasunari buruzko Munduko Biltzarraren esparruan, OMEk Pazientearen Segurtasun Eskubideen Gutuna aurkeztu zuen, gai hori jorratzen duen lehengoa, hain zuzen.
- Gainera, hemen klik eginda, OMEk pazientearen segurtasunarekin lotuta egindako beste argitalpen batzuk kontsulta daitezke, hala nola "Kalterik gabeko medikazioa" erronkari buruzko politiken azken txostena.




PAZIENTEAREN SEGURTASUNA LARRIALDI-ZERBITZUETAN

Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetako (OLZ) triajea osasun-sistemako sarrera-atea da askotan. Funtsezko tresna da pazienteen arrisku klinikoa identifikatzeko eta arreta-lehentasuna esleitzeko.

OLZetako segurtasuna indartzeko helburuarekin, erakunde guztietako OLZetan egiaztatutako esperientzia duten profesionalak parte hartu zuten, Zuzendaritza Nagusiak koordinatuta, **Triaie-sistema Korporatiboa** adostu eta garatzeko lanean.

OLZetako profesional guztien eta zerbitzu bakoitzeko erreferenteen lankidetzari esker, **sistema berriaren hedapena** amaitzen ari da. Aldi berean, kontsulta-arrazoien katalogoa eta konstanteen interakzioa hobetzeko lanean ari dira, erabakigarriak izan daitezkeen lehentasun-mailak aldatzeko eta patologia jakin batzuk detektatzeko.



Hedapenarekin batera, SUHetako mediku eta erizaintzako **prestakuntza-jarduera** bat antolatu da. Lehenengo edizioak irailean eta urrian egingo dira.

KIRURGIA SEGURUA

OMEk, Pazientearen Segurtasunerako Nazioarteko Aliantzaren baitan, arreta kirurgikoaren segurtasunari heltzea lehenetsi zuen, pazientearen segurtasunaren aldeko bigarren mundu-erronkaren bidez, hots, "Kirurgia seguruak bizitzak salbatzen ditu". Osakidetzan bultzatu zen ekimen hori, Pazientearen Segurtasun Estrategiaren "Kirurgia Segurua" ekintza-ildoaren esparruan.

Azken bi urteetan, **Segurtasun Kirurgikorako Egiaztapen Zerrendaren (SKEZ)** betetze-mailari dagokion datu kuantitatibo orokorra % 90etik gorakoa da. Hala ere, modu egokian erabiltzen bada bakarrik da eraginkorra.

Kirurgia Segurua

pazientearen segurtasunagatik

Markatu, eta okerrak saihestu

Cirugía Segura

por la seguridad del paciente

Marcar mejor que errar

Nola

- Markatu kirurgie-gunea gezi batekin.
- Adierazi lesioa zer gunetan edo mailatan dagoen.
- Eremu kirurgikoa prestatu ostean ere ikusi behar da.

Cómo

- Marca el sitio quirúrgico con una flecha.
- Indica el lugar o el nivel de la lesión.
- Debe permanecer visible aún después de la preparación del campo quirúrgico.

Noiz

- Ahal dela, pazienteak esna eta kontziente dagoenean.
- Ebaki baino lehen, egiaztatu.

Cuándo

- A poder ser, con la o al paciente despierto y consciente.
- Verifica antes de la incisión.

Nork

- Kirurgialari nagusiak edo laguntzaileak.

Quién

- Cirujano/cirujano principal o ayudante.

Ebakuntza kirurgiko bat jasaten dutenen segurtasuna handitzeko, eta ikasteko eta hobetzeko asmoz, **2023ko azaroan SKEZren edo checklist kirurgikoaren aplikazioaren balorazio kualitatiboa** egin zen.

Balorazio horren emaitzak Pazientearen Segurtasunari buruzko Jardunaldian aurkeztu ziren, maiatzean, eta agerian geratu zen beharrezkoa dela **SKEZ behar bezala erabiltzea sustatzen jarraitzea**. Horren harira, ildo honetako erreferentziazko talde korporatiboa lanean ari da prestakuntza-jarduera bat abian jartzeko helburu horri lotuta.

Gainera, prestakuntza hori aprobetxatuko da **"Ebakuntzak okerreko leku kirurgikoan egitea ekiditeko protokoloa"** bultzatzeko eta berriki eguneratu den kartel berria zabaltzeko.

Ebakuntza bat okerreko tokian egitea gertaera larria da, eta zenbait gauza egiaztatuz ekidin daiteke.

Osakidetza

ELKIDEGIA JAKINLAGARRIA GOBERNO VASCO

SEGURTASUNA ERRADIAZIO IONIZATZAILEAK ERABILTZEN DITUZTEN PROBETAN

Erradiazio ionizatzaileak erabiltzen dituzten probek **onurak** dakartzate, baina kontuan hartu beharreko **arrikuak** ere badituzte.

Inor erradiazio ionizatzaileen eraginpean ipini aurretik, beharrezkoa da jarduera hori justifikatzeko eta optimizatzeko oinarritzko printzipio batzuk betetzea. Helburu horixe du 601/2019 Errege Dekretuak, urriaren 18koak, **esposizio medikoetan pertsonen babes erradiologikoa emateko erradiazio ionizatzaileak erabiltzea justifikatzeari eta optimizatzeari buruzkoak.**



Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea aldeaz aurretik justifikatu behar da, probaren helburuak eta gizabanako bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Gainera, pertsona bakoitzari ematen zaion dosia optimizatu behar da, diagnostiko egokia lortzeko nahikoa baina ahal bezain baxua izan dadin.

Osakidetza profesionalak etengabe inplikatzeko dira, ahalik eta informazio onena lortzeko lan egiten baitute, **artatutako pertsonen jasaten dituzten erradiazio-dosiak justifikatu, estandarizatu eta optimizatu ahal izateko.**

ERDITZE-EREMUETATIK KANPOKO PREMIAZKO ERDITZEAK

Atención al parto de emergencia fuera de las áreas de parto



Egin [klik hemen](#) protokolora sartzeko

Premiazko erditzea da ustekabea eta ama-haurrentzako arreta-eremua duten ospitaleetatik kanpo gertatzen dena. Kasu hauetan, erditzen ari den emakumeak erditzeetarako prest ez dagoen toki batean jaso behar izaten du arreta, eta hurbil daukan norbaitek lagundu behar izaten dio, hala nola osasun-arlokoak ez diren pertsonen, Lehen Mailako Arretako zentroetako langileek, Etengabeko Arretako Guneetakoek (EAG), Emergencia Zerbitzuak edo erditze-eremurik gabeko ospitaleek.


Premiazko erditzean segurtasuna areagotzeko asmoz, diziplina anitzeko talde batek **"Erditze-eremuetatik kanpoko larrialdiko erditzeen arretarako protokoloa"** egin du. Protokolo horren bitartez, sinergiak ezarri dira osasun-erakundearen artean eta asistentzia-mailen artean, praktika klinikoaren aldakortasuna murrizteko eta amari eta jaioberriari eragin diezaieketen gorabeherak minimizatzeko.

Protokolo horrekin batera, bertan jasotako ekintzak azaltzen dituzten [aurkezpenak](#) eta praktika seguruak ikasteko [simulazio-bideo](#) bat ere prestatu dira.

PAZIENTEEN PARTE-HARTZEA BEREN SEGURTASUNEAN

OMEren Pazientearen Segurtasunerako Munduko Ekintza Planak (2021-2030) estrategia batzuk proposatzen ditu "pazienteak eta senideak ahalduzko eta inplikatzeko, osasun-arreta seguruagoa lortzeko bidea sustatzeko".


Testuinguru horretan, **pazienteak beren segurtasunean konprometitzeko plan** bat argitaratu du berriki. Gehienetan, pazienteak eta haien senideak dira haien prozesuaren une guztietan dauden bakarrak. Gainera, haiek dira sintomak hobekien ezagutzen dituztenak eta beste inori baino gehiago interesatzen zaizkie beren ongizatea eta prozesuaren emaitzak. Hori kontuan hartuta, **egoera pribilegiatuan daude segurtasun-gorabeherak prebenitzeko.**



MEDIKAZIOAREKIN ERLAZIONATUTAKO SEGURTASUNA

Berriki, ISMPk (Medikamentuen Erabilera Segururako Institutua) buletin bat argitaratu du, eta bertan, **medikazioarekin lotutako akatsak ekiditeko gomendioak jaso ditu, medikazioarekin lotutako 3 akats eta arrisku iraunkor azpimarratuz:**

- Medikazioa ematea: ez fidatu soilik "bost zuzenetaz" medikamentuak modu seguruan emango direla bermatzeko.
- Agente blokeatzaile neuromuskularrak istripuz ematea.
- Akatsak medikazioaren kontziliazioan asistentziako trantsizioetan.



Erroreak murrizteko estrategien ISMPren eraginkortasun-hierarkia egokituta

Segurtasun-gorabehera horiek behin baino gehiagotan gertatzeak agerian uzten du horrelako gertakizunak minimizatzeko jardunbide seguruak ez daudela guztiz ezarrita. Horregatik, garrantzitsua da **kontuan hartzea ez dagoela medikamentuak erabiltzean segurtasuna berma dezakeen praktikarik**; bada, medikamentuaren erabilera-sistemaren etapa guztietan lan egin behar da, eta esku hartzen duten profesionalen inplikazioa nahitaezkoa da.

GORABEHERAK JAKINARAZTEA ETA KUDEATZEA, PAZIENTEAREN SEGURTASUNERAKO EZINBESTEKO TRESNAK

Segurtasun-gorabeherak asistentzia sanitarioari lotuta beharrezkoa ez den kaltea eragiten duten edo eragin lezaketen gertaerak edo inguruabarrak dira. 2000. urtean, "To err is human" txostenak adierazten zuen **jakinarazpen-sistemak** funtsezko estrategia direla gorabeheretatik ikasteko, errepika ez daitezen.

Segurtasun-gorabeherak kausa-prozesu komun bat dute, eta "kalterik gabeko" gorabeheretatik ikasiz eta sisteman defentsak txertatuz gero, kontrako gertaerak (KG) minimiza daitezke. Hori kontuan hartuta, 2012an, Osakidetza **segurtasunaren arloan jakinarazpenak egiteko eta ikasteko sistema garatu zuen, SNASP**, alegia. Tresna korporatiboa da, eta langile guztiei ematen die aukera kalterik gabeko segurtasun-gorabeherak jakinarazteko, bai eta kudeatzaileei horien kudeaketa errazteko ere.



Gainera, kontrako gertaeretatik ikastea –hots, kaltea eragin duten segurtasun-gorabeheretatik– eta prebentzio- eta hobekuntza-neurriak hartzea SNASP bidez ikastea bezain garrantzitsua da. Horregatik, funtsezkoa da gure Zuzendaritza Nagusiaren **2/2018 Instrukzioa** betetzea, gorabehera horiek behar bezala jakinarazteko, kudeatzeko eta aztertzeke. Horrela, era berean, legezko alderdiak behar bezala kudeatzea eta balizko **bigarren eta hirugarren biktimak** prebenitzea sustatzen da.